


MERKATARITZA DATUETAN

2013 KO 4. HIRUHILEKOA



Aurkibidea

1	Salmenten bilakaera	3
2	Gizarte segurantzako afiliazioen bilakaera	5
3	Kontsumitzailearen konfiantzaren adierazlearen bilakaera	9
4	Kontsumorako prezioen indizearen bilakaera	11

1 SALMENTEN BILAKAERA

Tituluak:

- Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak %0,4 gehitu ziren 2013ko laugarren hiruhilekoan
- Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %1,7 nominala gehitu da.

Eustatek emandako datuen arabera, 2013ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %0,4 gehitu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, sektoreko salmentak %1,4 gehitu ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %1,7 nominala gehitu da, urtaro-eraginak kenduta.

	EUSKAL AE-KO TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA			
	URTE ARTEKO ETA HIRUHILE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA			
	4. HIRUHILEKOA. 2013			
	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t/t-4	t/t-1	t/t-4	t/t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	0,4	1,7	-1,2	1,6
Araba	-1,5	2,1	-2,5	1,9
Bizkaia	1,5	2,9	-0,2	2,8
Gipuzkoa	-0,6	-0,3	-2,2	-0,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-1,4	0,8	-2,4	0,6
Elikagaietan espezializatuta	3,7	2,9	1,9	4,3
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-4,2	-1,1	-4,7	-0,7
Beste produktuak	3,6	5,3	0,9	4,4
Pertsonen hornikuntza espezializatuta	3,3	5,4	-2,0	7,2
Etxearen hornikuntza espezializatuta	-1,2	2,1	-2,0	1,3
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	8,1	6,8	7,5	4,6
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	4,0	4,5	3,0	3,8
Automoziorako erregaia	-8,2	-3,1	-8,1	-4,1
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	1,4	3,3	-0,5	2,8

t/t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t/t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

1.Taula. Iturria: Eustat. Lantzea: Iksmer.

Elikagaien salmenta nominalak %1,4 gutxitu ziren 2013ko laugarren hiruhilekoan; Gainerako produktuenak %3,6 gehitu ziren eta automobilgintzarako erregai-salmenta %8,2 gutxitu, beti ere 2012ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %3,7 gehitu zen, eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %4,2 gutxitu. Gainerako produktuen txikizkakoan %1,2ko jaitsiera dago etxeko ekipamenduen merkataritza espezializatuan, eta indar ezberdinetako igoerak gainerako sektoreetan. Kontsumoko beste ondasunen espezializatuan %8,1 gehitu zen, gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %4,0 eta pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %3,3.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Bizkaian %+1,5, Araban %-1,5, Gipuzkoan %-0,6.

Prezio finkoetan, alegia prezioen efekturik gabe, txikizkako merkataritzaren salmentak %1,2 gutxitu ziren laugarren hiruhilekoan. Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- %0,5eko jaitsiera errealaren -prezio finkoetan- izan dute aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2013ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %1,6ko igoera izan da hirugarren hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta. Elikagaien txikizkakoan jaitsiera errealaren %2,4 izan zen; gainerako produktuak %0,9ko igoera errealaren, 2012ko hiruhileko beraren aldean; automobilgintzarako erregai-salmentak %8,1 gutxitu ziren.

Elikagaien txikizkakoan urte artekoa positiboa izan da espezializatuan, %1,9; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan, %4,7ko jaitsiera. Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan eta etxeko ekipamenduan %-2,0 bietan. Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan %7,5eko igoera eta gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %3,0koa. Hiru lurraldeetan izan zen jaitsierarik salmentetan termino errealetan: Araban %2,5, Gipuzkoan %2,2, Bizkaian %0,2, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Urteko balantzea

Urte osoan, txikizkako merkataritzaren salmentek %1,9ko jaitsiera nominal metatua izan dute. Gasolindegia sartu gabe, gainerako salmentetan %1,9ko jaitsiera dago 2013ko datu metatuetan 2012koen aldean. Termino errealetan, sektorea osorik %4,4 jaitsi da eta gasolindegirik gabe %4,7.

Tasa nominaletan Gipuzkoa eta Bizkaian %-1,8 urte osoan, eta Araban %-2,3. Prezio finkoetan: Gipuzkoan %-4,3, Bizkaian %-4,4, Araban %-4,8.

	EAE-KO TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA					
	URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA					
	UNEKO PREZIOAK			PREZIO FINKOAK		
	2013	2012	Δ%	2013	2012	Δ%
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera						
Euskal AE	94,1	95,9	-1,9	87,1	91,1	-4,4
Araba	96,9	99,2	-2,3	87,7	92,1	-4,8
Bizkaia	93,8	95,5	-1,8	87,5	91,5	-4,4
Gipuzkoa	93,3	95,0	-1,8	86,2	90,1	-4,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera						
Elikagaiak	95,5	97,6	-2,1	88,4	92,8	-4,7
Beste produktuak	90,1	92,0	-2,1	86,3	90,8	-4,9
Automoziorako erregaia	109,9	109,8	0,1	85,9	86,6	-0,8

2.Taula. Iturria: Eustat. Lantzea: Iksmer.

2 GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA

Tituluak:

- EAEan urrian, azaroan eta abenduan afiliazioen igoera.
- Urte arteko alderaketa: txikizkako merkataritza sektoreko afiliazioetan %0,66ko jaitsiera.

3. taulan 2013ko 4. hiruhilekoari dagokion lurralde historikoen eta erkidegoaren afiliazioen bilakaera adierazten da. Handizkarien sektorean, Arabak portaera irregularra erakusten du, urrian eta azaroan igoerak eman dira eta abenduan beherakada esanguratsua gertatu da. Gipuzkoak urrian eta azaroan gorako joera erakutsi du gutxieneko bat galduz abenduan. Bizkaiari dagokionez, azaroan bakarrik igo den arren, 4. hiruhilekoan aldeko saldoa lortzen du.

Gipuzkoan urrian ematen den %0,41eko jaitsiera alde batera utziz, txikizkariak 4. hiruhilekoan, zenbaki positiboak aurkezten dituzte, Joera honek aurreko hiruhileko datu negatiboak apurtzen ditu.

Ibilgailu eta ordezko piezen sektoreari dagokionez erakusten duen portaera irregularrak saldoa jaitea eragiten du hiru lurraldeetan.


Termino orokorretan, merkataritza sektorean, EAE osoan afiliazioen igoera erakusten duen lauhilekoa izan da, jaitsiera motel bakarrek Araban abenduan eta Gipuzkoan urrian leku hartu dutelarik. Azaroko hilabetea bere osotasunean aztertuz, hiru lurraldeetan %1 baino igoera handiagoak azaltzen dira.

LURRALDE HISTORIKOAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2013KO 4.HIRUHILEKOA

	ARABA	ALDAK.	GIPUZKOA	ALDAK.	BIZKAIA	ALDAK.	E.A.E.	ALDAK.
Handizkariak								
13/10	5.867	%0,05	12.565	%0,26	20.425	%-0,33	38.857	%-0,08
13/11	5.946	%1,35	12.647	%0,65	20.623	%0,97	39.216	%0,92
13/12	5.766	%-3,03	12.645	%-0,02	20.544	%-0,38	38.955	%-0,67
Txikizkariak								
13/10	10.093	%0,51	23.909	-%0,41	45.514	%0,43	79.516	%0,19
13/11	10.252	%1,58	24.241	%1,39	46.232	%1,58	80.725	%1,52
13/12	10.392	%1,37	24.643	%1,66	46.939	%1,53	81.974	%1,55
Ibilg. eta ord. piezak					6.295			
13/10	2.094	%0,05	4.264	-%1,00	6.267	%-0,44	12.625	%-0,55
13/11	2.113	%0,91	4.295	%0,73	6.294	%0,43	12.702	%0,61
13/12	2.097	%-0,76	4.267	%-0,65	6.263	%-0,49	12.627	%-0,59
Guztira								
13/10	18.054	%0,31	40.738	-%0,26	72.206	%0,14	130.998	%0,03
13/11	18.311	%1,42	41.183	%1,09	73.149	%1,31	132.643	%1,26
13/12	18.255	%-0,31	41.555	%0,90	73.746	%0,82	133.556	%0,69

3.taula. Iturria: GSIN.Lantzea: ikusmer.

1go grafikoan merkataritzako afiliazioen bilakaera isladatzen da, metatutako EJSNren 45, 46 eta 47 epigrafeak, 2009ko urtarrilean seriea hasi zenetik., EAE osorako.



1go Grafikoa. Iturria: GSIN. Lantzea: Ikusmer.

4. taularen bitartez, urte arteko moduan eta azpisektoreka azterketa bera eginez, nabarmenki erkatutako afiliazioak azpisektore guztietan jaitsi direla ikusi daiteke, baina jaitsiera hau 3. hiru hilabeteen emandakoa baino motelagoa izan da: %-2,20koa handizkako merkataritzarako, %-0,66koa txikizkakoan eta %-3,01koa ibilgailu eta ordeko piezen salmentan. EAE osorako urte arteko jaitsiera %-1,34an zenbatzen da. Lurraldeen araberako bilakaerak kasu guztietan antzeko portaera erakusten du, Autonomi Erkidegoarekin alderatuz, igarotako hiruhileko antzeko proportzioko jaitsierekin.

LURRALDE HISTORIKOAK. URTE ARTEKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2013KO 4.HIRUHILEKOA

Handizkariak	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	E.A.E.
2012ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	5.896	12.803	21.133	39.832
2013ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	5.766	12.645	20.544	38.955
Aldakuntza	%-2,20	%-1,23	%-2,79	%-2,20
Txikizkariak	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	E.A.E.
2012ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	10.543	24.495	47.477	82.515
2013ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	10.392	24.643	46.939	81.974
Aldakuntza	%-1,43	%0,60	%-1,13	%-0,66
Ibilg. eta ord. piezak	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	E.A.E.
2012ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	2.172	4.378	6.469	13.019
2013ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	2.097	4.267	6.263	12.627
Aldakuntza	%-3,45	%-2,54	%-3,18	%-3,01
Guztira	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	E.A.E.
2012ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	18.611	41.676	75.079	135.366
2013ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	18.255	41.555	73.746	133.556
Aldakuntza	%-1,91	%-0,29	%-1,78	%-1,34

4. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

5. taulan sektoreka, hiletik hilerako bilakaera aztertzen da, 2013ko laugarren hiru hilabeterako, EAEko merkataritzako oinarritzko 7 udalerriei dagokienez.

Handizkarien sektorean, 3. hiruhileko datu negatiboekin erkatuz, jaitsiera puntualak nabarmentzen dira. Hala jaitsiera hauek ez dute zazpi udalerriek afiliazioaren hiruhilekoaren totalerako igoera aurkeztea eragozten.

Joera positibo hau txikizkarien sektorean mantentzen da, portzentai guztiak positiboak izanik, abenduko Laudioko datuak alde batera utziz eta urriko eta azaroko igoera esanguratsuek jaitsiera hau konpentsatzen dutela kontuan izanik.

Ibilgailu eta ordezko piezen salmentek zenbaki desberdinagoak aurkezten badituzte ere, osotasunean aztertuz negatiboak direla esan daiteke, Donostian, Bilbaon, Barakaldon eta Laudion hiruhileko zenbateko negatiboak erakutsiz eta balio positiboak Gasteizen, Getxon eta Irunen.

Termino orokorretan, merkataritza sektorean, urrian eta azaroan igoera orokorrak hautematen dira, Bilbaoko urriko %0,23ko jaitsiera alde batera utziz. Abenduan, ordea, Gasteizek, Bilbaok eta Laudiok saldo negatiboak erakusten dituzte, portzentualki jaitsiera handiena Bilbaokoa izanik, %0,30ko balioarekin.

UDALERRIAK. HILETIK HILERAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2013KO 4.HIRUHILEKOA

	GASTEIZ	ALDAK.	DONOSTI	ALDAK.	BILBAO	ALDAK.
Handizkariak						
13/10	4.565	%0,24	3.665	%0,19	5.321	%-0,23
13/11	4.646	%1,77	3.677	%0,33	5.399	%1,47
13/12	4.469	%-3,81	3.678	%0,03	5.347	%-0,96
Txikizkariak						
13/10	7.988	%0,15	8.359	%0,47	13.805	%0,12
13/11	8.102	%1,43	8.590	%2,76	13.917	%0,81
13/12	8.251	%1,84	8.728	%1,61	14.105	%1,35
Ibilg. eta ord. piezak						
13/10	1.589	%0,25	929	%-2,11	1.400	%-2,44
13/11	1.603	%0,88	913	%-1,72	1.418	%1,29
13/12	1.591	%-0,75	906	%-0,77	1.409	%-0,63
Guztira						
13/10	14.142	%0,19	12.953	%0,20	20.509	%-0,23
13/11	14.351	%1,48	13.180	%1,75	20.605	%0,47
13/12	14.311	%-0,28	13.312	%1,00	20.544	%-0,30

	BARAKALDO	ALDAK.	GETXO	ALDAK.	IRUN	ALDAK.	LLODIO	ALDAK.
Handizkariak								
13/10	581	%-0,34	1.092	%0,74	1.350	%1,58	99	%0,00
13/11	583	%0,34	1.097	%0,46	1.344	%-0,44	100	%1,01
13/12	597	%2,40	1.109	%1,09	1.351	%0,52	100	%0,00
Txikizkariak								
13/10	4.299	%0,47	2.018	%0,10	2.497	%0,00	643	%7,35
13/11	4.426	%2,95	2.024	%0,30	2.527	%1,20	659	%2,49
13/12	4.515	%2,01	2.061	%1,83	2.580	%2,10	623	%-5,46
Ibilg. eta ord. piezak								
13/10	430	%1,18	147	%2,80	553	%-0,90	146	%-2,67
13/11	427	%-0,70	146	%-0,68	589	%6,51	144	%-1,37
13/12	419	%-1,87	145	%-0,68	578	%-1,87	142	%-1,39
Guztira								
13/10	5.310	%0,44	3.257	%0,43	4.400	%0,36	888	%4,72
13/11	5.436	%2,37	3.267	%0,31	4.460	%1,36	903	%1,69
13/12	5.531	%1,75	3.315	%1,47	4.509	%1,10	865	%-4,21

5. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

6. taulan 2012-2013 denboraldirako sektoreen araberako urte arteko bilakaeraren erkaketa aztertzen da. Udallerri eta azpisektore gehienetan jaitsiera esanguratsuak antzematen dira, datu negatiboak badira ere, 3. hiruhilekoak baino datu hobekoak dira. Portzentuak daturik negatiboak berriz ere, Laudioko ibilgailu eta ordezk piezen sektoreari dagozkio. Zenbaki absolutuak aztertuz, afiliazioaren erorketa handienak Bilbaoko eta Donostiako handizkako eta ibilgailu eta ordezk piezen sektoreei egokitzen zaizkio.

Datu positiboak dagokienez, Barakaldok %1,35eko igoera erakusten du txikizkarien sektorean, Irunek igoera nabarmenak izan ditu txikizkari eta ibilgailu eta ordezk piezen sektoreetan, eta Getxok bere aldetik, txikizkarien sektorean %0,10eko jaitsiera minimoa izan badu ere, %2,88 eta %1,40eko igoerak aurkezten ditu handizkarien eta ibilgailu eta ordezk piezen sektoreetan hurrenez hurren.

UDALERRIAK. URTE ARTEKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA - 2013KO 4.HIRUHILEKOA

Handizkariak	GASTEIZ	DONOSTI	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LLODIO
2012ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	4.600	3.800	5.604	623	1.078	1.388	102
2013ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	4.469	3.678	5.347	597	1.109	1.351	100
Aldakuntza	%-2,85	%-3,21	%-4,59	%-4,17	%2,88	%-2,67	%-1,96
Txikizkariak	GASTEIZ	DONOSTI	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LLODIO
2012ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	8.374	8.786	14.372	4.455	2.063	2.527	650
2013ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	8.251	8.728	14.105	4.515	2.061	2.580	623
Aldakuntza	%-1,47	%-0,66	%-1,86	%1,35	%-0,10	%2,10	%-4,15
Ibilg. eta ord. piezak	GASTEIZ	DONOSTI	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LLODIO
2012ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	1.647	1.009	1.500	452	143	535	171
2013ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	1.591	906	1.409	419	145	578	142
Aldakuntza	%-3,40	%-10,21	%-6,07	%-7,30	%1,40	%8,04	%-16,96
Guztira	GASTEIZ	DONOSTI	BILBAO	BARAKALDO	GETXO	IRUN	LLODIO
2012ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	14.621	13.595	21.476	5.530	3.284	4.450	923
2013ko afiliazioak (abenduaren 31ean)	14.311	13.312	20.861	5.531	3.315	4.509	865
Aldakuntza	%-2,12	%-2,08	%-2,86	%0,02	%0,94	%1,33	%-6,28

6. taula. Iturria: GSIN.Lantzea: Ikusmer.

3 KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEAREN BILAKAERA

Tituluak:

- Urteko alderaketan, adierazleen igoera iraunkorra. Igurikimenen adierazlearekin erkatuz, uneko egoeraren adierazlearen aurreratzearen ondorioz.

- Aurreko hiruhilekoarekin erkatuz, 2013ko laugarren hiruhileko honetan, %2,3ko igoera ematen da Kontsumitzailearen Konfiantzaren Adierazlean.

URTEA/ HILABETA	KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN ADIERAZLEA	UNEKO EGOERAREN ADIERAZLEA	IGURIKIMENEN ADIERAZLEA
12/01	68,30	42,80	93,80
12/02	58,00	36,40	79,50
12/03	63,70	40,20	87,10
12/04	50,30	31,90	68,60
12/05	50,50	31,00	70,00
12/06	50,60	30,60	70,70
12/07	37,60	24,30	50,80
12/08	41,60	27,30	55,90
12/09	43,20	28,30	58,10
12/10	44,80	30,10	59,60
12/11	45,00	28,80	61,30
12/12	44,30	26,70	61,90
13/01	55,70	36,20	75,20
13/02	50,70	32,10	69,20
13/03	52,10	35,00	69,20
13/04	56,70	37,70	75,60
13/05	50,80	35,80	65,80
13/06	61,80	45,90	77,60
13/07	63,30	47,40	79,20
13/08	68,60	53,40	83,70
13/09	69,80	54,10	85,40
13/10	65,30	51,20	79,50
13/11	72,30	54,40	90,10
13/12	71,00	53,80	88,20

7. taula. Iturria: CIS. Lantzea: Ikusmer.


Urriko Kontsumitzailearen Konfiantzaren Adierazlea (KKA) 65,3 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin erkatuz, 4,5 puntu azpitik. KKAren jaitsiera uneko egoeraren hautemate okerrago baten ondorioz (-2,9) eta bereziki igurikimenen jaitsiera garrantzitsuak eraginda (-5,9) ematen da. Hala ere, aurreko urteko urriko datuekin alderatuz gertatutako aurrerapena nabarmenki esanguratsua da: igoerak 20,5 puntu lortzen ditu, termino absolutuetan antzeko irabaziekin, uneko egoeraren balorazioan (+21,1) eta igurikimenetan (+19,9) igoerak emanez. Dena den portzentualki, azkenengo hiru hilabetetan gertatzen zen moduan, azkenengo 12 hilabetetako bilakaera ez da bereziki homoginoa: KKA %45,8 puntutan igo egiten da, uneko egoeraren zenbatespena %70,1eko hazkundea erakutsi eta igurikimenetan %33,4ko igoera ematen delako.

Azaroan KKA 72,3 puntutan kokatzen da, aurreko hilabetearekin alderatuz, 7,0 puntu gainetik. KKAREN igoera hau, uneko egoeraren balorazio positibo baten ondorioz (+3,2) eta bereziki, igurikimene hobeatzearen (+10,6) eraginez ematen da. Aurreko urteko hilabete berdineko datuekin erkatuz adierazlean aurrerapen handia agertzen da, 27,3 puntu gehituz. Termino absolutuetan antzeko irabaziekin 25,6 puntu uneko egoeraren baloraziorako eta 28,8 igurikimenezako. Hala ere, portzentualki, azkenengo lau hilabeteetan gertatu den bezala, azkenengo 12 hilabeteetan erregistratutako bilakaeraren homogeneotasuna txikiagoa da: KKA 60,7% igotzen da uneko egoeraren %88,9ko hautematearen eta igurikimene %47,0ko igoeraren ondorioz.

Abenduko KKA 71,0 puntutan kokatzen da, aurreko hilabeteko datuarekin erkatuz 1,3 puntu behetik. KKAREN jaitsiera motel hau uneko egoeraren balorazio okerrago baten (-0,6) eta igurikimene jaitsieraren (-1,9) ondorioz ematen da. Uneko eta etorkizuneko egoeraren balorazio okerragoek bilakaera negatiboa azaltzen dute. Aurreko urteko abenduarekin alderatuz, gertatutako aurrerapena bereziki adierazgarria da: igoera 26,7 puntutan kokatzen da, uneko egoeraren (+27,1) eta igurikimene (+26,3) igoerek antzeko balioak izanik. Dena den, portzentai terminoetan, azkenengo hilabeteetan gertatzen zen bezala, bilakaera ez da berdina izan: KKA 60,3% igo da uneko egoeraren hautematean %101,5eko eta igurikimene %42,5ko hazkundera kontuan izanik.

Hiruhileko eboluzioa aztertuz, 2012ko hirugarren hiru hilabeteke minimo historikoetatik, 2013ko azkenengo hiruhilekoraino, indizeak uniformeki igo direla ikusten da, uneko egoeraren adierazleak igurikimene baino eragin handiagoa izan duelarik. Urte honetako hirugarren hiru hilabetearekin alderatuz, azkenengo hiru hilabeteen %2,3ko aurrerapena ematen da, uneko egoeraren %1,5eko eta igurikimene %3,2eko igoerei esker. Bukatzeko, 2012 eta 2013en arteko urteko batezbesteko eboluzioa 11,7 puntutan igo da KKARI dagokionez, 2012ko batezbesteko 49,8 puntutatik 2013ko batezbesteko 61,5 puntutara igaroz.

2. grafikoan konfiantzaren 3 adierazleen bilakaera azaltzen da, 2012ko urtarriletik gaur egunera arte.



2 Grafikoa. Iturria:CIS. Lantzea: Ikusmer.

4 KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEAREN BILAKAERA

Tituluak:


- EAEko KPI indizea %0,6an kokatu zen abenduan, Europako Banku Zentralaren erabakiak gidatzen duen %2ko erreferentziaren oso azpitik.
- Ia ez dago alderik azpiko eta hondar inflazioen artean, beraz ez da goranzko tentsiorik hautematen datozen hilabeteetarako.

URTEA/ HILABETA	INDIZEA	HILEKO ALDAKUNTZA	AURTENGO ALDAKUNTZA ORAINGOZ	URTEKO ALDAKUNTZA
13/10	104,6	0,6	0,4	0,4
13/11	104,9	0,2	0,7	0,6
13/12	104,8	-0,1	0,6	0,6

Unitatea: 2011 Oinarria=100

8. taula. Iturria: Eustat.Lantzea: Ikusmer.

INEk argitaratu dituen azken datuen arabera, euskal autonomia erkidegoak %0,6ko prezio igoserarekin amaitu zuen 2013. urtea, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Emaitza hori serie historiko osoan abendu batean jaso den txikiena da. Hala ere, oso hazkunde tasa apala den arren, prezioen igoera, oro har, Estatuarena baino handiagoa izan zen. Diferentzia hori hiru hamarrenekoa izan zen eta neurri handi batean botiken koordainketak eragin zuen. Izan ere, EAEn pasa den uztailaren 1ean sartu zen indarrean, baina gainontzeko autonomia erkidegoetan ez zuen inolako eraginik izan, beraietan 2012ko uztailaren 1etik indarrean zegoelako. Horiek horrela izanda, medikuntza taldearen prezioak %9,2 hazi ziren EAEn, Estatu osoan inolako aldaketarik izan ez zuten bitartean.



3. Grafikoa. Iturria: Eustat. Lantzea: Ikusmer.

Abenduko datu horrekin, 2013ko batez besteko inflazio tasa %1,6an kokatu zen, inoiz jaso den erregistrorik txikienetako bat delarik. Hain zuzen ere, 2009an eskuratu zen %0,3 hura da oraingoa baino apalagoa den datu bakarra, baina gogoratu behar da urte hartan krisia bere gordinenean zegoela. Iazko hilabeteak igaro ahala, inflazioak moteltzera jo zuen, eta urte hasieran balio gorenak (%2,6 otsailean) jaso ondoren, azken hilekoetan maila apalenak erregistratu ziren. Kontsumoko prezioen bilakaeran ezagutu zen moteltze horren arrazoi nagusia eskariaren ahultasuna da. Halaber, prezioen igoera are txikiagoa izan zitekeen zergen alorrean neurriak hartu izan ez balira, hala nola zeharkako zergetan eta araututako hainbat produktuetan ezarri ziren igoerak.

KPI TALDE NAGUSIAK			
URTE ARTEKO ALDUKUNTZA TASA			
	Euskadi	Espainia	Euro Gune
INDIZE OROKORRA	0,6	0,3	0,8
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	0,8	1,2	1,4
Alkoholik edariak eta tabakoa	5,1	5,6	3,5
Jantziak eta oinetakoak	0,2	0,0	0,3
Etxebizitza	0,0	0,0	1,5
Etxeko hornidura	-0,2	-0,2	0,5
Medikuntza	9,2	0,0	-0,6
Garraioak	1,2	1,0	0,4
Komunikazioak	-6,5	-6,6	-3,4
Aisia eta kultura	-0,8	-1,2	0,5
Irakaskuntza	2,5	1,9	0,7
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,7	0,2	1,4
Beste batzuk	0,5	0,3	1,0

9. Taula. Iturria: EIN. Lantzea: Ikusmer

Barne kontsumoaren ahultasun hori azpiko inflazioan ere nabaritu zen, urte arteko tasa azaroko %0,8tik abenduko %0,6ra murriztu baitzuen. Gehikuntza tasa hori azken hiru urte eta erdiko epealdian ezagutu den txikiena da. Adierazle hori osatzen duten talde nagusiek, hala nola landutako elikagaiak eta industriako ondasunek, beherantz bultzatu zituzten salneurriak. Aitzitik, zerbitzuetako prezioetan ez zen inolako aldaketarik gertatu epealdi horretan.

Nagusiki, garraioaren taldeak eragotzi zuen KPI indizeak are balio apalagoak jasotzea, azaroko %0,5etik abenduko %1,2ra igo zuelako bere urte arteko tasa, berriki gertatu den erregaien garestitzearen ondorioz. Hala ere, garestitze horrek ez dirudi jarraipena izango duenik. Lehenago aipatu den medikuntzaz eta garraioaz gain, aurreko hilabetearen aldean gehiago garestitu zen beste talde bat etxebizitza izan zen, hamarren bat igo baitzen, berogailuetarako gasolioaren garestitzeak bultzatuta. Aitzitik, prezioak gehien moteldu zituzten taldeak aisia eta kultura, eta jantziak eta oinetakoak izan ziren. Lehenengo %0,1etik %-0,8ra igaro zen, antolatutako bidaien salneurria gutxiago hazi zelako. Bigarrena, berriz, %0,7tik %0,2ra apaldu zen urte arteko tasa, merkealdien deskontuak aurreko urtekoak baino handiagoak izan zirelako.